

Nola Bizi Hala Kanta

Üdako egünaldi bero argietan ^G
Aideak ekarri indar güzietan ^D
Kantü berri zaikü sortü gogoetan ^C ^{Em}
Eskentzeko negüko gau lüzetan ^G ^D
Ainerak bezala biltzen da gizona ^G
Baten ahaidea denen egarria ^D
Algarretatzeara ^C zuin miragarria ^{Em}
Etxen ondoan piztüko giro hona ^G ^D

Nola bizi hala kanta dio üskaldünak ^G ^D
Maitarzün emanez hola adio lagünak ^C ^D x2
Aiten aitek ützi guri oparia ^G
Idatzian ere zer dote ederra ^D
Egün hedatu nahiz züer sü garra ^C ^{Em}
Agor ez dadin hitzen ütürria ^G ^D
Nola bizi hala kanta dio üskaldünak ^G ^D
Maitarzün emanez hola adio lagünak ^C ^D x2